TXOTXONGILOAK ERAIKITZEKO AUKERA
Igandeko Txotxongiloen Nazioarteko Eguna dela eta ekitaldi ugari antolatu dituzte Topic-en ostiraletik aurrera › 2

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** .info

Asteartea 2010-03-16

VIII. URTEA 1.953. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

SERGIO FERNANDEZ TOLOSA KAZETARIA ETA BIDAIARIA

«Basamortu guztiak dira ezberdinak flora, fauna eta bizimodu aldetik»

TOLOSA '7 basamortuak' proiektuaz hitz egingo du bihar Amalur jardunaldien baitan 20:00etatik aurrera Topic-en

30.000 KILOMETRO Australia, Atacama, Mojave, Namib, Kalahari, Gobi eta Saharako desertuak igaro ditu 3

SERGIO FERNANDEZ TOLOSA

'Irudirik hurbilena' tailerra gaur Aranburun

TOLOSA Oraindik ere ekitaldi ugaritan hartu daiteke parte 'Aurrez aurre'ren baitan 2

Harrijasotzaileak plazan. E. EZEIZA

Plaza jendez bete zen Musun Borda berreraiki ahal izateko

LEITZA Familiak eskerroneko hitzak besterik ez ditu herritarrentzat 5

Manifestazioa egin dute Garikoitz Ibarluzearen askatasuna eskatzeko

IBARRA «Scotland Yardeko Estradizio Zerbitzuak» atxilotu zuen gaztea Londresen «kale erasoekin» lotuta; atzo igaro zen epailearen aurretik 4

Gaur ere manifestazioa egingo dute herrian. A. IMAZ

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA
ASTEARTEA, 2010EKO MARTXOAREN 16A

Afrikako doinuen erritmora

GIZARTEA ● Afrika mendebaldeko erritmoez gozatzeko aukera izan zen atzo arratsaldean, Aranburu jauregian. *Aurre aurre* ekimenaren baitan, Tolosako Jabekuntza Eskolako kideek emanaldia eskaini zuten. Ondoren, *Umorearen artea* hitzaldia eman zuen Isabel Francek. Gaur 16:30ean, toki berean, *Irudirik hurbilena* tailerra izango da Ana Belen Jarrinen eskutik. Parte hartu nahi dutenek, kamera digital bat eramatea besterik ez dute. Azkenik, duela bi aste martxan jarritako ekimenari amaiera emateko *Praktika artistikoak-praktika feministak* izenburupean mahai-ingurua egingo da bihar 18:30ean. E. MAIZ

Jolastuz txotxongilo bat eraikitzeko aukera izango da Topic-en

Kultura » Txotxongiloen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekitaldi izango dira datozen egunetan, Tolosan.

Txotxongloen Nazioarteko Zentroa inauguratzearekin batera egin zuten lehendabziko tailerra. I. TERRADILLOS

ERREDAKZIOA

Txotxongiloen etxea Tolosan izanik, modu berezian ospatuko da datozen egunetan Txotxongiloen Nazioarteko Eguna. UNIMAk antolatuta, Topic-en hainbat emanaldi eta ekitaldi egingo dira.

Aurelio Vicenteren ikus-entzunezko batekin ostiralean emango zaio hasiera ospakizunari. Hurrengo egunean, izango dira hala ere ekitaldi garrantzitsuenak. Goizean 11:00etatik aurrera, jolasen bidez, txotxongiloak eraikitzeko aukera izango dute haurrek. Tolosako Ekinbide Etxeak txotxongiloen inguruko tailer eta ikastaro ezberdinak antolatu ditu urtean zehar egiteko. Oraingo honetan, sei urtetik gorako haurrek txotxongilo bat eraikitzen ikasi ahal izango dute. Antolatzaileek eramango dute materiala, eta honekin, «bizia har dezakeen panpina miragarri bat» sortu ahal izango dute.

Tailerrean izango duten forma eta kolore ezberdinetako material aukeraketaren bidez txotxongiloaren begiak, gorputza, ilea, aurpegia eta ezaugarri fisikoak definituko dituzte gaztetxoek. Honela, bakoitzak bere pertsonaia aurkeztuko du tailerra bukatzerakoan, eraikitzearen erritmoarekin batera izaera zehatz bat emanaz.

Saioak bi orduko iraupena izango du. Interesa dutenek Tolosako Ekinbide Etxera, 943-65 04 14 telefono zenbakira, deitu behar dute.

Malitik Txinara

Ostiral honetan inauguratuko da aldizkako bigarren erakusketa. Maliko txotxongiloek Txinakoei utziko diote tokia . 19:00etan zabalduko ditu honek ateak.

» TXOTXONGILOEN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoak 19, ostirala

■ **19:30.** Bideoaren aurkezpena. Aurelio Vicentek egindako ikus-entzunezkoaren aurkezpenak, *El jardinero* ikuskizunaren eszenografiaren sortzearen prozesua abipuntua hartuta, Titirijai 08ko ikuskizun batzuen eszenak aurkezten ditu. Eszenografia Maria Cueto eta Mariano Arsuagak diseinatu zuten, Amaia Elosegi eta Laureano Olaetxearen laguntzarekin.

Martxoak 20, larunbata

■ **11:00.** Umeentzako tailerra; *Ondo pasa txotxongilo bat sortzen ikasten*. Zazpi urtetik gorakoei zuzendua. Prezioa: 5 euro.

■ **19:00.** Erakusketaren inaugurazioa. Tradiziozko pertsonaiak Txinatar txotxongilo antzerkian. Aldizkako erakusketa hau maiatzaren 31ra arte egongo da irekita.

■ **Ondoren.** Nazioarteko Txotxongilo Egunaren mezua. Nazioarteko Txotxongilo Egunaren ekitaldi ofiziala honako hauek gidatuko dute: Robert Lepagek, Nazioarteko UNIMAren izenean, eta Luisa Etxeniquek, UNIMA Euskal Herriaren izenean.

■ **20:00.** Titeres Teatro Urgente Madrid taldeak *Ganbarako lanak* saioa aurkeztuko du. Helduei zuzendua dago ikuskizuna, eta gazteleraz da. Sarrerak 7 eurotan erosi daitezke. Ondoren, jaia izango da ambigun.

Martxoak 21, igandea

■ **12:30.** Pasaiako Dejabu Txotxongilo Laborategiaren eskutik, *Azken portua* lana ikusteko aukera izango da. Familia guztiari zuzendutako emanaldia da. Euskaraz izango da. Helduentzako sarrerek 7 euro balio dute, eta haurrenek 4.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Eskaintza.** Sukaldari, zerbitzari, okin edo gozogile bezala lan egingo neke. Harremanetan jartzeko deitu ondorengo telefono zenbakira: 662 49 40 78.

SALGAI

■ **Motorra.** KTM 125 SX markako motorra salgai. 1998. urtekoa da. Egoera oso onean. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 651 70 90 23.

L Laburrak

Udalekuetan izena emateko epea zabalik da

AISIA ● Gipuzkoako Foru Aldundiak udalekutako kanpainari hasiera eman dio.Hau, 7-13 urte artekoei dago zuzenduta. Hilaren 26ra bitartean eman daiteke izena Gazte informazio bulegoan (kultur etxea) eta internetez *www.gipuzkoa.net/oporraldi*-n. Eskaera banaka edo taldeka egin daiteke (taldeko lagun gehienez). Apirilaren 12 eta 13an zozketara onartutakoen izenak jarriko dira Kultur Etxean eta interneten.

Orientazio ikastaroa Oargi mendi elkartearen eskutik

KIROLAK ● Oargik, hilaren 22,24,26 eta 27 rako orientazio ikastaroa antolatu du. 26ra arte, elkartean bertan izango dira saioak 19:15etik 21:00etara. Larunbat goizean berriz, mendira joango dira ikasitakoa praktikan jartzera.Carlos Garcia izango da irakaslea. Ikastaroaren prezioa 30 euro ingurukoa da (jendearen arabera). Izena emateko 20 euro aurreratu beharko dira Euskadiko Kutxaren 3035 0028 11 0281141038 kontuan edo elkarteean. Izena 688-69 86 42ra deituta (19:00etik aurrera) edo *info@oargi.org*-n egin daiteke.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarrain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain. Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larriald: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbola: 943 006900
Amarozko dispen.: 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosaldea bus: 943 650621
Leitzaran autob.: 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leitza): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Tolosa gasa: 943 675320

E **Elkarrizketa**

SERGIO FERNANDEZ TOLOSA › Kazetaria eta bidaiaria

SERGIO FERNANDEZ TOLOSA

«Norbere buruari jarritako erronkak dira basamortuak»

Natura » Amalur jardunaldien barruan '7 basamortuak' proiektua izango du hizpide Sergio Fernandez kazetari eta bidaiariak bihar.

IÑIGO TERRADILLOS

Desertua ongi ezagutzen du Sergio Fernandez Tolosak (Bartzelona, 1974). Edo desertuak, berak dioen bezala, «basamortu guztiak desberdinak direlako, bai flora, fauna eta bertako bizimoduari dagokionez». 2003an *7 basamortuak* izeneko proiektuarekin hasi zen, eta ia bost urteren buruan 30.000 kilometro egin zituen Australia, Atacama, Mojave, Namib, Kalahari, Gobi eta Saharako desertuetan barna, bere txirrinduaren konpainian. Liburua argitaratu zuen gerora bere bizipenak kontatuz, eta ikus-entzunezkoa ere egin dute proiektuan oinarrituz. Bihar Tolosan izango da bere abenturak kontatzen, Amalur jardunaldien barruan, 20:00etan, Topic-en.

16 urterekin egin zenuen lehen bidaia bizikletaz. Nondik datorkizu zaletasun hori?

Egia esan, ni beti izan naiz pertsona geldiezina. 16 urte bete arte ez nuen bizikletaren mundua ezagutu, zerbait ezezaguna zen niretzat. Baina, egun batean, nire bizilagunak aldizkari bat erakutsi zidan, eta han ikusi nuen pertsona batek munduari bira eman ziola bizikletaz. Horrela sortu zen nigan pixkanaka txangoak bizikletaz egitearena. Gogoan dut lehen bidaia: Pirinioetara joan nintzen bizilagunarekin, bost egunetarako.

Eta ordutik zure aldean izan duzu ia beti txirrindua bidaietan.

Bai. Konturatu nintzen asko gustatzen zitzaidala horrelako bidaiak egitea, kanpoan zaudelako uneoro. Lehen bidaiean mendi portuetan asko gozatu nuen, eta bigarrena ere inguru haietan egitea erabaki nuen. Bigarrena luzeagoa izan zen, 10 egunetakoa. Hori bai, lehen bidaia haiek gaur egun egiten ditudanetatik desberdinak ziren. Gaur egun, esaterako, Pirinioetara joango banintz ez nuke egingo urte haietan egin nuena.

Zertan ziren desberdinak lehen bidaia haiek?

Gazteagoa nintzen, nerabea, eta gauzak azkarrago egiten nituen. Kilometroak, gailurrak egitea nuen erronkatzat. Eta hori aldatu egin da; gaur egun, polikiago egiten ditut bidaiak, geldialdiak eginez, ingurugiroa ikusiz, jendearekin hitz eginez... Bizimoduari begiratzen diot gehiago.

Australiara egin zenuen bidaia egin arte kilometro ugari eginak zenituen bizikleta gainean.

Kazetaritza ikasketak egiten hasi nintzen. Interesgarria iruditzen zitzaidan mundu hori, baina era berean, bizikletaz bidaiak egiteko interesa ez nuen galdu. Horregatik, udan bidaiatuz jarraitu nuen, eta horrela, pixkanaka nire zaletasuna eta ikasketak uztartzen hasi nintzen, aldizkarietan kolaborazioak egiten hasi bainintzen. Lan kontuengatik Australian egin nuen egonaldi bat, eta bertako inguruneaz txundituta, berriro bueltatu eta bizikletaz hango desertua zeharkatu beharra nuela pentsatu nuen. Horrela sortu nuen desertuetan barna bizikletaz aritzeko proiektua.

Eta desertuenganako zaletasun hori betidanik izan al duzu?

Betidanik sentitu ditut desertuak zerbait berezi bezala. Batetik, desertuak oso leku desberdinak eta politak iruditzen zaizkit. Bestetik, basamortuek badute erronka moduko bat, zaila-edo egiten dutena, eta horrek abentura puntua ematen die; zeure kabuz aurrera atera beharra izaten duzu, norbere buruari jarritako erronka modukoa direla esango nuke. Bi sentsazio horiengatik izan ditut buruan beti desertuak.

Australian hasi zinen basamortuetako bizimodua ezagutzen, eta Saharakoan izan arte 7 desertu igaro dituzu bizikletaz. Ba al dute antzekotasunik edota guztiz desberdinak dira?

Jendeak uste du munduko basamortu guztiak berdinak direla, baina ez da horrela. Basamortu bakoitza mundu bat da, eta oso desberdinak izan daitezke flora, fauna edota bertako biztanleei dagokionez. Bertako herritarren ohiturak eta bizitzeko modua oso desberdina dela ikusi dut, hainbat basamortutako herrixketan egon izan naizelako bizitzen. Halaber, animalietan ere alde handiak somatu ditut desertuaren arabera; hau da, animalia bera edo espezie berekoa izanik basamortu batekoa edo bestekoa bada asko aldatzen da bai fisikoki bai eta jarrerari dagokionean ere.

Gogorra izan behar du desertu bat bizikletaz igarotzea.

Bizikletaz egiteak baldintzatu egin zaitzake, eta era berean, aukerak areagotu ditzake. Nik, esaterako, urarekin 3 egunerako autonomia izan nezakeen, beraz, derrigorrez geldialdiak egin behar nituen herrixketan. Ibilbidea pentsatzean, 300 kilometroro aurreikusten nituen gelditzeko guneak. Horren alde ona zera da, basamortuetan bizi direnekin elkarbizitzeko aukera nuela. Bestetik, bakarrik bidaiatzearena dago; nire ustez basamortua bezalako leku batean bakarrik egitea errazagoa izan daiteke.

Desertuena amaitzean zer egin duzu edota egiteko asmoa duzu?

Liburua eta ikus-entzunezkoa etorri ziren gero, eta ondoren, hiru urtetan zehar naturara egokitutako kirola aztertzen egon naiz. Horrela konturatu naiz ezindu ugari dagoela kanpoan egiten den kirolean ari dena, eskalatzen edota mendiak igotzen, esaterako. Hori amaitzear dut, eta ondoren Ekialdean kokaturiko Zetaren bidea bizikletaz egin nahi dut. Nire bikotearekin egingo dut, eta ziur amaitzean liburu batean kontatu ditugula bizitakoak.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Garikoitz Ibarluzearen askatasuna eskatu dute

Ibarra » Herenegun atxilotu zuten Londresen «kale erasoekin» lotuta; gaur ere manifestazioa egingo dute herrian.

ASIER IMAZ

Garikoitz Ibarluzea ibartarra «Scotland Yardeko Estradizio Zerbitzuetako» poliziek atxilotu zuten herenegun Londresen, lanean zegoela. Ibartar gaztearen senideen esanetan, epailearen aurretik atzo igaro zen: «Denbora gutxiko kontua izan da. Abokatuak defentsa prestatzeko denbora eskatu du eta epaileak 7-10 egun eman dizkio. Guk abokatuarekin oraingoz telefonoz bakarrik hitz egin dugu. Garik abokatuari ondo dagoela esan dio, lasai dagoela».

Ibarran atzo iluntzean manifestazioa egin zuten. A. IMAZ

Abokatuak gaztearen defentsa prestatzen duen bitartean, ibartarrak espetxean egon beharko du.

«Espainaratzeari uko»

Berria.info webgunearen arabera Garikoitz Ibarluzeak uko egin dio Espainiaratzeari, eta Londresen atxilotuta segituko du, Espainiaratze auzi saioa egin bitartean. Baliteke hilaren 22an egitea saioa, bideokonferentzia bidez. Westminsterko barrutiko auzitegira eraman zuten atzo, eta Daphne Wickham epailearen aurrean hogei bat minutuz izan da. Daniel Sternberg fiskalak egin ditu Ibarluzearen aurkako eskaerak, kale borrokari lotutakoak.

Berria-ren webguneak zabaldutakoaren arabera, Sternberg fiskalak «leherketa eta hilketa egiteko delituak» aipatzen ditu, eta horiek kartzelara joateko modukoak direnez, Ibarluzea ez aske uzteko eskatu zuen.

«Bizitzaren kontrako ekintzetan ez dute parte hartu»

Ibarluzea, kale erasoekin lotuta, 2002an atxilotu zuten, Ibarraldeko beste zazpi gazterekin batera. Hilabete batzuetara baldintzapean aske geratu ziren denak. Ondoren, 2006an epaitu zituzten, baina Ibarluzea ez zen Espainiako Auzitegi Nazionalera agertu. 1999 eta 2002 artean hainbat kale erasotan parte hartu izana egotzi zieten gazteei; baina Espainiako fiskalak, orain Sternberg fiskalak dionaren aurka, «bizitzaren kontrako ekintzetan ez zutela parte hartu» esan zuen orduan. Ondorioz, gazteei bi urteko kartzela zigorra ezarri zieten eta espetxea ekidin zuten.

Bizkor System-eko kaleratzeak adostuak direla dio zuzendaritzak eta langile ohiek

Anoeta » Zuzendaritzaren hitzetan egoerak 23 lan hitzarmenen iraungipen lan erregulazio txosten (ERE) batera eraman ditu.

ERREDAKZIOA

Anoetako Bizkor System lantegiko 23 langilek elkarretaratzea egin zuten martxoaren 2an enpresako jabeak dirua zor diela salatzeko. Langileek sei hilabeteko soldata, dietak eta kilometroak kobratu gabe geratu direla esan zuten. Langile hauek kaleratuak izan dira lan hitzarmenak eteteko lan erregulazi txosten (ERE) baten ondorioz, eta horixe izan da enpresako jabeak nabarmendu nahi izan duena.

«Ez dugu inor kaleratu»

Bizkor Systemeko arduradunak langilerik ez dutela kaleratu argitu du: «ez dugu inor kaleratu Bizkor Systemetik, egoerak hitzarmenen iraungipen ERE batetara eraman gaitu», argitu dute. Era berean, lan erregulazio txostena (ERE) «bi alderdien artean adostu» zutela, gaineratu du.

Bizkor Systemek 2009ko abenduaren 29an eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailari 23 langileren gaineko lan hitzarmenaren etetea. Eta 2010eko urtarrilaren 25ean eman zion baiezkoa. Eusko Jaurlaritzak egindako txostenean irakurri daitekenez «bi alderdien arteko akordioarekin» amaitu zen kontsulta epea.

Txostenak, era berean, lan erregulazio txostena arrazoi honengatik onartu dutela argitzen du: «galera egoera edo lan indarren arteko desoreka eta ekoizpen beharren edo merkatuaren mailak zehazten duen lan maila gehiegizkoa da enpresaren ekoizpen oreka berrian». Horiek horrela, «langileekin Langileen Estatutuko 51.5 artikuluan eta urtarrilaren 19ko 43/1996 errege-dekretuko 11. artikuluan aurreikusten diren akordioetara iritsi dira. Ez da ikusten, ofizioz edo interesatuek eskatuta, engainurik, iruzurrik, indarkeriarik edo eskubideen gehiegikeriarik ezta kausa desegokirik zerbitzuen okerreko lorbiderik, eta horregatik onartzen da txosten hau aurretik aipatutako arrazoiak direla eta».

Horiek horrela, 23 langileek enpresan lan egindako urte bakoitzeko 20 eguneko soldata jaso behar dute. Urte bete baino gutxiago lan egin dutenek, aldiz, hilabeteko proportzioa jaso beharko dute, gehienez 12 hilabete jasoko dituztelarik. Hori aurretik, hitzarmen edo itun bidez, kalte-ordain handiagoak hitzartu ez badituzte.

Langile ohien babesa

Horiek horrela, Bizkor System-eko zenbait langile ohiek zuzendaritza babestu nahi izan dute.

Lehenik eta behin, aipatu martxoaren 2ko elkarretaratzea ekarri dute gogora. «Nola da posible pertsona hauek kalera ateratzea gaia modu honetan pertsonalizatuz - elkarretaratzeko pankartan jabearen izen abizenak zeuden- eta batez ere, nola da posible pertsona bat eta bere ingurua horrela hondoratzea horrelako lotsagabekeriarekin, edota beraiek ere mehatxuak jasaten dituzte edota pankartak jartzen dizkiete bankuari hipoteka ordaintzen ez badiete?», galdetu dute.

Langile ohien iritziz, inork ez du merezi jabeari egiten ari zaiena. «Bizkor System-ek 15 urteko ibilbide laudagarria duen enpresa da, baina batzuk urte hauek pikutara bidali nahi dituzte lanpostuak kontutan hartu gabe, izan ere, erratuta ez bagaude, 2009 hasieran Bizkor Systemek 45 langiletako lantaldea zuen eta ahal izan duen guztia egin du aurrean jarri zaizkion arazo guztiei aurre egiteko, beste enpresa asko bezala», argitu dute. «Zein erraza den arduradun bakarra bilatzea gutako bakoitzak enpresan zati bat utzi duenean, eta guztiok izan dugu erantzukizuna izen abizenekin, legezkoa izango al litzateke horiek argitaratzea?», gaineratu dute.

Bukatzeko langile ohiek lan hitzarmen guztien etetea «bi alderdien onarpenarekin» egin dela nabarmendu dute eta jabeari euren babesa agertu.

Musun Bordaren aldeko jaialdian herriak «oso ondo» erantzun du

Leitza » Plaza jendez bete zen eta borondatezko laguntza eman zuen horretarako banatu ziren lau kaxatan.

Herriko harri-jasotzaileek jaialdian parte hartu zuten. E. EZEIZA

ERREDAKZIOA

Leitzako Musun Borda berreraikitzeko jaialdiaren balantze «oso positiboa» egin du Jon Arangoa zinegotziak. «Herriak oso ondo erantzun zuen. Plaza jendez bete zen eta laguntza eman zuen», azaldu du Arangoak. «Diruaz aparte ere garrantzitsua izan da jendea azaltzea ekitaldira eta bere animoak ematea Migel Martin Sagastibeltzari».

Mikaela Zabaletak, Migel Martin Sagastibeltzaren koinatak, eskerrak eman ditu biziki: «Gertatutakoaren ondoren konturatu gara ez gaudela bakarrik, jende pila bat laguntzen ari zaigula». Jaialdia «ikaragarria» izan zela azaldu du Zabaletak: «Espero baino jende gehiago izan zen, parte-hartzaile asko izan ziren jaialdian ere. Eguraldiak lagundu zuen eta giroa festetakoa bezala ematen zuen».

Ezbeharrari bere alde ona bilatuz, «guk eskatu gabe jende asko laguntzen ari zaigu eta zorteko sentitzen gara», dio Zabaletak. «Migel Martini ere aurrera egiteko animoak ematen dizkio honek guztiak».

Kirolarien prestutasuna

Bildutako dirua, baina, ez da nahikoa izango baserriaren berreraikitzeak eskatzen duenari erantzuteko. Horregatik, aurrera begira, beste ekimen batzuk aurreikusten dituzte, musikarekin lotuta, adibidez.

Larunbateko jaialdia herriko plazan egin zen eta ez zen sarrerarik ordaindu behar izan. Diru bilketa borondatezkoa izan zen eta horretarako lau kaxa banatu zituzten ikuslegoaren artean.

Herri kirol jaialdia kirolarien aldetik proposatu zen. «Musun Borda Arkixkil auzoan dago eta bertan bizi diren kirolariak hasi ziren jaialdia bultzatzen», azaldu du Arangoak. Kirolariek Udalera jo zuten laguntza eske eta Udalak azpiegitura eta antolakuntza alorretan lagundu du. «Kirolariek agertu duten prestutasuna» nabarmendu du Arangoak. «Azkar mugitu ziren eta segituan herriko hainbat kirolarik ere parte hartzeko asmoa agertu zuten. Kanpotik ere animatu ziren eta egunean bertan ezustekoren bat ere izan zen».

Tiratzaileek saioa egin zuten jaialdian. E. EZEIZA

Arangoa zinegotziak azaldu duenez, Udalak badu asmoa Musun Bordaren berreraikitze lanean beste lan batzuk egiteko. «Adibidez bidea egokitu behar da eta beste kudeaketa batzuk egiten ere lagunduko dugu. Baserriak mantentzearen alde egiten dugu eta laguntzen saiatuko gara».

Hurrengo osoko bilkurarako utzi dute udal aurrekontuen onarpena

Amezketa » Hainbat inbertsio proposatu dira, tartean ur sarearen hobekuntza eta espaloietan irisgarritasuna hobetzea.

ERREDAKZIOA

Amezketako Udalaren azken osoko bilkuran, besteak beste, udal aurrekontuaren gaia eztabaidatu zen. Zenbait zinegotzik denbora gehiago eskatu zuten aurrekontua aztertzeko. Horrela, hurrengo plenorako atzeratu zen erabakia.

Aurrekontua, aktan jasotzen denez, 2009ko ekitaldiaren berdina da funtzionamendu arloan. Pertsonal gastuak, zerbitzu gastuak, kulturako transferentziak eta abar lehengo urteko antzekoak dira.

Inbertsioei dagokionez, ondorengoak proposatu dira: ur sarearen eta zoruaren berrikuntza plazatik mediku kontsultaraino; irisgarritasuna hobetu espaloietan; ur galerak murriztu %20a arte eta kontrolatzeko sistema jarri; baserriko bideak konpondu; eskolako segurtasun obrak; *Amezketa 400/Pernando 250* bideoa, bertako historia eta ondarea azalduz; eta artxibo historikoa digitalizatzea.

Aurrekontuaren onarpena atzeratzea onartu bazen, espaloiaren proiektua eta ur kontrolarenak aurrera eramatea erabaki zen. Hain justu, beste puntu batean herriko ur sarea zatikatu eta kontrol informatikoa ezartzeko obrarako esleipena onartu zuten. Hiru proposamen zeuden eta horien berri eman zen bilkuran. Seipa, SL enpresak aurkeztu zuen proposamen merkeena, 125.862,32 eurokoa, eta jakinik antzeko obrak egin dituenez Donostian emaitza onak izanez, berari ematea onartu zuen Udalbatzak.

Horrez gain, jorratutako beste puntu bat izan zen Naturgas Energia Distribucion S.A.U.-ri zorupea erabiltzeagatik 441,79 euro eskatuko zaizkiola, hau da, 2009ko ekitaldian Amezketan fakturatu zuenaren %1,5a. Era berean, eta zorupea erabiltzeagatik ere, Naturgas Energia Comercializadora S.A.-ri 765,85 euro kobratuko zaizkio, 2009 urtean herrian fakturatu duenaren %1,5a, hain zuzen.

Bestalde, osoko bilkuran azaldu zenez, 2009ko Errenta Aitorpena euskaraz egiteko saiakeran edo kanpainan Udalak parte hartuko du eta horrela jakinaraziko zaio UEMAri.

25 emakume bildu dira elkartean

UGARTE ● Emakumearen Egunaren harira, aurten ere egin dute bazkaria Ugarten, auzoko elkartean. «Zero urtetik laurogei ta... arteko 25 emakume bildu gara. Menua primerakoa eta giro ezin hobea» izan dutela azaldu dute antolatzaileek. HITZA

UNIVERSITY of CAMBRIDGE
ESOL Examinations
Authorised Centre

June 2010 Examination
First - Advanced - Proficiency

LACUNZA

Izen-ematea zabalik martxoaren 22ra arte

Azterketak **Ordizia, Tolosa, Zarautz, Donostia eta Irunen egingo dira**
(azterketak prestatzeko **Ikastaro bereziak**, emaitza bikainak)

Donostia / San Sebastián						Irun
Centro / Erdialdea		Amara	Gros		Antiguo	Centro / Erd.
Urbieta 16	Moraza 5	San Bartolomé 10	Eustasio Amilibia 14	Secundino Esnaola 39	Bertsolari Xalbador 8	J.Ramón Agüirreche 8

902 012 912
www.lacunza.es | academia@lacunza.es

Kirol emaitzak

PILOTA

Binakako Txapelketa

BIGARREN MAILA, FINALERDIAK

Saralegi-Eskudero 22
Aritz Lasa-Merino 15

Olazabal-Arruti 9
Arretxe II-Ibai Zabala 22

FINALA, HILAREN 27AN

Saralegi-Eskudero
Arretxe II - Ibai Zabala

Berria Txapelketa (Leitza-Markina)

KADETEAK

A. Olano - M. Hernandorena 22
Albizu-Pujana 7

JUBENILAK

X. Jaunarena- J. Jaunarena 22
Arrieta-Aretxabaleta 12

SENIORRAK

Iñaki Esain-Mikel Iriarte 22
Urberuaga-Castillo 14

(Aurrera-Saiaz/Zazpi-Itturri)

KADETEAK

Labaka - Elustondo 20
Nazabal - Artola 22

JUBENILAK

Urbieta-Zinkunegi 22
Gallurralde - Jaka 14

SENIORRAK

Renobales - Galarraga 22
Olaetxea - Leundiri 15

Finalerdiak

LEITZA/AURRERA- SAIAZ

Zizurko Txapelketa, finalaurreak

KADETEAK

J. Aldaregia (Aurrera) 8
Otamendi 18

ALEBINAK

Lezea (Aurrera) 10
- 16

Irurtzungo Txapelketa

INFANTILAK

A. Gartziarena-L. Galartza 18
- 11

Nafar Jokoak, finalaurrekoa

KADETEAK

Xabi Eraso- Ibai Gil 22
Aranpilota B 12

INFANTILAK

X. Zubiria- A. Eskudero 18
Zugarralde 12

FUTBOLA

Erregional Ohorezko Maila

Tolosa CF - Euskalduna SD 2-0

SAILKAPENA

1. Pasajes (54 p.); 2. Zarautz (51 p.); 3. Aurrera de Ondarroa (47 p.); **4. Tolosa CF (42 p.)**

1. Erregionala Igoera Fasea

Axular Lugaritz - **Amaroz KE** 1-1

SAILKAPENA

1. Allerru (22 p.); 2. Lengokoak (21p.); 3. Kostkas-Miren Bihotza (18p.); **8. Amaroz (8 p.)**

Intxurre - Martutene 2-0

SAILKAPENA

1. Irun (23 p.); 2. Santo Tomas Lizeoa (17 p); 3. Mondragon (16p); 5. **Intxurre (13 p.)**

ARETO FUTBOLA

Nazional A Maila

Lauburu KE - Zalatambor 99 8-2

SAILKAPENA

1. Zierbana (51p.); 2. Zalatambor Area 99 (47p.); **3. Lauburu KE** (46p.)

Nazional B Maila

Concepto Createch- **Laskorain** 2-1
La Bellota - **Transp. Lakunza** 3-5

SAILKAPENA

1. Laskorain Ikastola (48p.); 2. Alerru Algeposa (48p); 3. Concepto-Createch (44p); **10. Transportes Lakunza (27p.)**

SASKIBALOIA

Lehen Maila, jaitsiera fasea

Bide bide Ibiza TAKE 93
Mondragon Unibertsitatea 66

SAILKAPENA

1. TAV. Fundacion Baskonia (7-3); 2. Lagunak (6-4); 3. UPNA (6-4); **8. Bide bide Ibiza TAKE (5-5)**

TXIRRINDULARITZA

XXII. Insalus Saria

1. Ibai Salas (Seguros Bilbao)
2. Ruben Fernandez (Koplad)
3. Fernando Grijalba (Naturgas)

Leitzarrak eta markinarrak elkarrekin Amazabal pilotalekuan, Berria Txapelketako lehiaren ostean. HITZA

Ekaitz Saralegik Binakako Txapelketaren finala jokatuko du asteburuan

Pilota » Berria Txapelketaren finalerdietan Aurrera-Saiaz eta Leitza neurtuko dira Beotibarren.

ASIER IMAZ

Bigarren Mailako Binakako Txapelketaren finalean, Berria Txapelketan bezala, eskualdeko ordezkaritza egongo da.

Ekaitz Saralegik txapela irabazteko eskubidea Urretxun lortu zuen ostiralean, hilaren 12an. Bigarren Mailako Txapelketan amezketarrak Eskuderorekin osatzen du bikotea eta Aritz Lasa-Merino garaitu zituzten finalerdietan, 22-15eko emaitzarekin.

Bigarren finalerdian Mikel Olazabal aurkitzen zen, Arrutirekin bikotea osatuz. Aresoarrak ordea finala harmailetatik ikusi beharko du, Arretxe II-Ibai Zabala nagusitu baitziren Beasainen 22-9ko emaitzaz.

Binakako Txapelketari dagokion final handi hau asteburu honetan jokatuko da. Oraindik frontoia eta ordua erabakitzeke aurkitzen dira. Lehen Mailako Binakako Txapelketaren azken ligaxkan lau bikoteak Aspekoak baldin baziren, kasu honetan lau finalistak Asegarcekoak izango dira.

Berria Txapelketa

Ekaitz Saralegiren herritarrek aurten ez dute Berria Txapelketa irabazteko aukerarik edukiko, ostiralean Aurrera-Saiazen aurka galdu baitzuen Zazpi-Itturrik.

Irabazleek igandean jakin zuten finalerdietako aurkariaren izena. Leitzako Amazabal pilotalekuan herriko taldea eta Markina lehiatu ziren herenegun eta garaileek Aurrera-Saiaz zuten zain. Kadeteetan erraz nagusitu ziren leitzarrak, 22-7ko emaitzarekin. Jubeniletan Jaunarena anaiek 22-12 irabazi zuten eta nagusien partida jokatu aurretik kanporaketa ia erabakirik aurkitzen zen. «Tentsio handirik gabeko partida batean» Esainek eta Iriartek 22-14ko garaipena lortu zuten. Leitza eta Aurrera-Saiazen arteko finalerdia ostegun edo igande honetan jokatuko da Beotibarren. Oraindik ordua eta data zehatza ez dituzte erabaki.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta **Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Tolosak Lauko Finalean sartzeko aukera du oraindik

Tolosa » Pasa den larunbateko Trindoor txapelketako saioan hirukoteak bigarren egin zuen.

Azpeitia, Tolosa eta Zarauzko parte hartzaileak. HITZA

ERREDAKZIOA

Tolosak marka txukuna egin zuen pasa den larunbatean Euskadi Irratiak antolatutako Trindoor Herri Arteko Emakumeen Txapelketan. Azpeitiak egin zuen denborarik onena, hala ere, eta Markinarekin batera zuzenean sailkatu zen Lauko Finalean sartzeko. Tolosako hirukotea, berriz, datorren larunbatean Gernikak eta Azpeitiak zer egin zain geratu da. Tolosako taldea Izaskun Atorrasagastik, Irene Sansebastianek eta Amaia Arbillagak osatzen dute.

Azpeitia izan zen azkarrena

Azpeitiak, hortaz, ez zuen hutsik egin larunbateko saioan. Kanporaketetako denbora azkarrenaren jabe izanik Tolosa eta Zarautzen aurkako finalaurrekoan faborito zen irabazi eta Lauko Finalera zuzenean sailkatzeko, eta baita egin ere. Beren aurreko denbora gainditu, Lauko Finaleko lehen kolpea jo zuten: 13 minutu 48 segundo, aurreko marka baino 10 segundo azkarrago ibili ziren Oihana Agirre, Mireia Epelde eta Nerea Etxeberria. Hiruek jarri zuten berea, gainera, hobetze horretan: Agirrek 2 segundo jan zizkion bere aurreko arraun markari, Epeldek 5 segundo bizikleta saioari, eta Etxeberriak 2 segundo korrikakoari, bidenabar korrikako marka nagusia ezarriz (5 minutu eta 22 segundo).

Tolosa eta Zarautz bigarren postuaren lehian ibili ziren, denbora ona egiteak Lauko Finalerako txartela eskuratzeko balio zezakeela jakitun. Zarautz aritu zen lehendabizi, eta kanporaketan egindako denborari 55 segundo jan zizkioten guztira 14 minutu 47 segundoko marka eginez.

Tolosa segidan aritu zen, zarauztarren erreferentzia aintzat hartuta, presio puntu dezentekoarekin, eta estu ibili arren zarauztarren denbora 4 segundoko aldeaz gainditu zuten 14 minutu eta 43 segundoko denbora eginez, kanporaketetan baino 5 segundo azkarrago.

Gauzak horrela Tolosak oraindik badu aukerarik Lauko Finalean sartzeko. Hurrena, hilaren 20an, Gernika eta Azkoitia izango dira aurrez aurre; irabazlea Lauko Finalean sartuko da, eta galtzaileak Tolosaren denbora gainditu beharko du laugarren finalista izateko.

» DENBORAK

- **Izaskun Atorrasagasti.** 3 minutu eta 01 segundo.
- **Irene Sansebastian.** 5 minutu eta 48 segundo.
- **Amaia Arbillaga.** 5 minutu eta 53 segundo.

2-1 galdu du Laskorainek

Tolosa » Azken segundoan galdu zuen Conceptoren aurkako partida eta ondorioz, abantaila murriztu zaio.

ERREDAKZIOA

Hamahiru jardunaldi eta gero hamalaugarrenean pairatu zuen azkenik Laskorainek porrotaren zapore mingotsa. Elgoibarko Olaizagan izan zen, 2 eta 1 sailkapeneko hirugarren postuan zegoen eta dagoen Concepto Createch-en aurka, eta albistea baieztapen xume eta xalo bat da, alegia, laskoraindarrak hezur-haragizkoak direla eta ondorioz ez daudela porrotetik libre. Gainezka zegoen Olaizagara hurreratu ziren laskorainzale ugarien bisaiak ilundu zituena ez zen beraz kinieletan sartzen zen horitxoen porrota izan, porrot hori jasan zen modu anker eta bihozgabea baizik.

Lehen itzuliko Tolosako neurketa gogoan, horitxoek Elgoibarrera beste irudi bat emateko amorruz egin zuten bidaia. «Liderrak gu garela erakutsi behar diegu eta horrelaxe jarraitu nahi dugunaren anbizioa ere hasieratik nabari behar digute» ziren Jorge, Javi eta Imanol prestatzaileek astean zehar errepikaturiko aginduak.

Honela, etxekoak ustekabean harrapatu nahirik, horitxoek goian presionatuaz ekin zioten neurketari eta honek elgoibartarrak partidaren ekimena partekatzera behartu zituen.

Atsedenaldia eta gero

Aldageletatik bueltan ez zen partidaren itxura aldatu. Jada bi taldeak ziren goian presionatzen zutenak eta honek baloiaren jabetza luzeak eragozten zituen. Hasieran elgoibartarrak izan ziren nagusiago, baloiak atxilotua zirudielarik ikastolakoen kantxa erdian, baina pixkanaka tolosarrak joan ziren garaipenera gerturatzen. Lander eta Murgik presinari eskerrak baloi ederrak lapurtu zituzten, Jonikok eta Gilek beren abiadurarekin helduera eta errematea ipini, baina tamalez kamuts punteria. Zorigaiztoko azken minutuan jazo zen guztia. Telleriak min hartutako arerio bat sorosteko kanpora botatako baloia elgoibartarrek ez zuten itzuli eta baloi jabetza horretantxe, bigarren jokaldian hori bai, gola sartu zuten amaierarako 35 segundoren faltan. Horitxoek noski atezain jokalariarekin erantzun zuten ondoren eta jokaldi josi bati eskerrak Barriola kapitainak 14 segundoren faltan berdinketa egin. Jarraipenean ordea, eta sinestezina badirudi ere, elgoibartarrek baloia eraman eta jaurtiketa bikain batekin bigarrena sartzeko astia izan zuten.

Gisa horretara galtzeak ematen duen minarekin agurtu ziren horitxoak Elgoibartik. «Hobe 4 eta 0 galdu bagenu» zioen zaletu beteranoren batek, baina oker. Etorkizunera begira zu baino gehiago den talde batekin topatzea askoz okerragoa da, zu baino gehiago ez den batekin azken segundoan galtzea baino.

Emaitza onak lortu dituzte gazteek atletismoko frogetan

Tolosa » Pista estaliko txapelketan txapeldun izan zen Irune Agirrezabala; Unai Arroyok laugarren egin zuen.

ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan Oviedon, jubenilen Espainiako Pista Estaliko Txapelketa ospatu zen eta bertan Irune Agirrezabala txapeldun suertatu zen 60 metro hesietako frogan, denbora ikusgarriak lortuz: 8 segundo eta 87 ehuneneko finalerdietan eta 8 segundo eta 96 ehuneneko finalean.

Unai Arroyo laugarren izan zen 3.000 metrotan 9 minutu, 09 segundo eta 32 ehunenekorekin, oso ondo egonda ere, seguru berak gehiago espero zuela egiten ari den denboraldia ikusita, izan ere, 3.000 eta 1.500 metrotako Gipuzkoako errekor berriak ezarri ditu eta krosetan ia dena irabazi du. Ane Elizegik seigarren egin zuen 3.000 metrotan, 10 minutu, 57 segundo eta 51 ehuneneko denborarekin.

Pista estaliko Espainiako Txapelketa

Aurreko asteburuan berriz, Junioren Pista Estaliko Espainiako Txapelketa izan zen Donostian eta bertan Tolosa CFeko Xabier Artieda 200 metrotako lasterketako finalean sartu zen 22 segundo eta 62 ehunen eginez, baina lesio bat tarteko ezin izan zuen finalean parte hartu.

Iker Epeldek 400 metrotako finalean sartzea lortu zuen Tolosako inoizko markarik hoberena ezarriz (49 segundo eta 93 ehunen), baina finalean ez zuen bere mailarik ematea lortu eta seigarren egin zuen.

Aitor Zabalak, bere aldetik, 200 metrotako sailkatze frogetan 23 segundo 49 ehuneneko egin zituen eta ez zuen finalerdietarako txartela lortu. Bukatzeko, Xabier Leundari oso gutxi falta izan zitzaion 60 metro hesietako frogan finalean sartzeko, 8 segundo eta 62 ehuneneko denbora egin zuelarik.

Garaipen borobila eskuratu du Lauburuk Area 99ren aurka

Ibarra » 8-2 irabazi zuen larunbatean Belabietan Lizarrako taldearen aurka izandako partida.

ERREDAKZIOA

Partida borobila izan zen larunbatekoa. Ibarrako Lauburu taldeak 8-2 irabazi zion Nafarroako Area 99 taldeari etxean bertan izandako norgehiagokan. Nafarroako taldeak, bere aldetik, batez ere teknikoek, ez zuten kiroltasunik erakutsi prentsa arduradunaren, Jose Manuel Tobiasen, hitzetan.

Partida bi taldeen joko onarekin hasi zen. Atezainek ere lan asko izan zuten, batez ere Ibarrakoak. Partidako zazpigarren minutuan Lizarrako taldeak, Daniel Garciari esker, lehen gola sartu zuten. Jokaldi «bitxia» izan zen Tobiasen, hitzetan.

Jokaldi hobeak

Lehen golaren ondotik ibartarrak jokaldi hobeak egiten hasi ziren eta Nafarroako atera geroz eta gehiago gerturatzen hasi ziren.

Unai Labacak ateratako falta bat probestu zuen Aitzol Oyarbidek berdinketa lortzeko. 12. minutuan izan zen. Hurrengo gola ere ibartarrek sartu zuten, Unai Labacak, hain zuzen.

Partidako lehen zatian gol gehiago sartzeko aukera ere izan zuten Lauburuko jokalariek, baina atezainak ekidin zituen.

Bigarren zatia hasi bezain laster Unai Labacak hirugarren gola sartu zuen. 22. minutuan, aldiz, Raul Ericek nafarren bigarrena sartu zuen.

Hortik aurrera, Area 99 taldekoen gainbehera etorri zen. Geroz eta nekatuago zeuden eta ez zuten jokaldi txukunik egiterik lortu. 8-2 emaitzarekin amaitu zen partida.

Bestalde, gazteen talde probintzialak 6-1 irabazi zion Urretxuko Goierri taldeari. «Era erosoan» irabazi zuten, nahiz eta taldeak baja ugari dituen, tartean atezainarena, Goar Lopetegik hartu duelarik bere tokia.

Tolosaldeko komunikabide batek
Kazetaritzan edota Euskal Filologian
lizentziatuak
edo ikasleak behar ditu
lan poltsa osatzeko.
Interesatuek deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a **tolosaldean@tolosaldekohitza.info** helbidera

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza .info

2010-03-16 Eguraldia

Goiza | Arratsaldea | Tenperatura: 16º / 6º

Bihar: GOIZA LAINOTUTA; ARRATS. LAINOTUTA; BEROENA 16º; HOTZENA 8º

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldekohitza.info.
Webgunea: www.tolosaldekohitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldekohitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo @tolosaldekohitza.info.
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea @tolosaldekohitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea @tolosaldekohitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea @tolosaldekohitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea @tolosaldekohitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile | Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil | Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Tailerra

■ **Tolosa.** *La imagen más próxima* tailerra gaur Aranburu jauregian 16:30ean Ana Belen Jarrin artistarekin.

Batzarra

■ **Ibarra.** Ibarratik Misio Taldearen urteko batzarra parrokiako lokaletan (San Bartolome plaza, 3-behea) gaur 20:15ean (lehen deialdia 20:00etan). Ekonomia balantzea; proiektuak eta zuzendaritza taldearen aldaketa izango dituzte hizpide.

Mahai-ingurua

■ **Tolosa.** *Praktika artistikoa-praktika feminista* mahai-ingurua bihar Aranburu jauregian 18:30ean Maria Mur eta Estibaliz Sadabarekin.

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Amalur bidaia, natur eta antropologia jardunaldiaren baitan Sergio Fernandez Tolosa kazetariaren hitzaldia bihar 20:00etan Topic-en. Bizikletaz eta bakarrik zazpi basamortuetan zehar egindako bidaiez hitz egingo du.

■ **Ibarra.** Antxon Andueza salesianoaren hitzaldia parrokiako lokaletan bihar 20:00etan. *Europa Iparraldeko emigrazioa: Errumaniaren kasua: Zergatik? Ondorioak? Adaptazioa* izena du hitzaldiak.

Antzerkia

■ **Tolosa.** May Gorostiagaren *May Gorostiaga... ¡Presente!* obra etzi, hilak 18, Topic-en 20:30ean

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte M.T. Euskal Herria kalea, 46. 943 67 32 74.

■ **Leitza.** Erbiti O. Lizarraga kalea. 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zientzia eta literatura lantzeko bisitak

Villabona » Josu Maeztu izan zen Fleming-en zientziaz hitz egiteko; Iñaki Zubeldia idazlea ere izan da bertan.

ERREDAKZIOA

Azken egun hauetan bisita bereziak izan dituzte Villabonako Fleming herri ikastetxeko ikasleek.

Batetik, hezkuntza zientifikoko saioak izan dituzte LH 5. eta LH 6. mailako gazteek eta baita irakasleek ere.

Esperimentuen mundua

Horiek horrela, mundu zientifikoan sartzeko Josu Maeztu Iñigez bilbotarra izan zen Villabonan. «Berak erakutsi digu, ikasleen hipotesiak jaso ondoren, arazo baten aurrean modu zientifiko batean esperimentuak egiten eta hipotesi horiek betetzen diren ala ez frogatzen», azaldu dute eskolako arduradunek.

Horiek horrela, «lortzen diren emaitzak interpretatu ondoren teoria edota legeak sortzen direla, eta seguru beste hainbat arazo sortzen direla» ere ikasi zuten ikasleek.

Josu Maeztu eta Iñaki Zubeldia izan dira Fleming herri ikastetxean. HITZA

Era berean, LH 3. mailako ikasleek literaturara gerturatzeko parada izan berri dute. Horretarako *Euskaldun bat Marten* liburuko egilea gerturatu zen Villabonara, Iñaki Zubeldia Otegi irakasle, pedagogo eta idazlea, hain zuzen.

Galdeketa «interesgarria» gaztetxoen eskutik

LH 3. mailako gazteek irakurrita zuten jada *Euskaldun bat Marten* liburua eskoletan landu baitzuten eta beraz, idazle eta pedagogoari ipuinari buruzko galdeketa «interesagarria» prestatzeko parada ere izan zuten eskolako arduradunek esandakoaren arabera.

«Garbi geratu zaien gauzen artean dago Santa Barbara mendia izenarekin leku dezente daudela munduan... baina bereziena Zarautzen dagoela», argitu dute irakasleek.

A Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

• HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
• HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza .info

bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: • N A :
• Lanbidea: • Jaioteguna:
• Helbidea: • Herria:
• P.K: • Tel.:
• Posta elektronikoa:
• Kontu zenbakia:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa, beterik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea.
Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.- Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info